



Gurean

berdintasuna



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Hezkuntza Saileko Berdintasunerako administrazio-unitatea
6. zbk. 2019 Maiatza



**Berdintasunaren eta
tratu onaren bidean**



BERDINTASUNAREN ETA TRATU ONAREN BIDEAN

“Sexualitatea lantzeak, badu puntu iraultzaile bat, bada pertsonak modu askean hezteko modu bat”

Horixe adierazi du Ixaso Torregrosa sexologoak. Berak landutako “Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzako sexu heziketari buruzko gidan”.

Gaur egun legez araututako sexu hezkuntza integrala adin tarte guztietan lantzea gomendatzen dute Europako herrialderik aurreratuenek eta hainbat erakundek, haien artean Munduko Osasun Erakundeak (MOE), Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) eta Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsak (UNICEF).

Eredu honi jarraituz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak “EAEko hezkuntza-sistemarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)” plana aurkeztu du. Plan honen zortzi zutabetako bat Berdintasunezko hezkuntza afektibo eta sexuala da.

Hezkuntza Sailak berriki “EAEko hezkuntza-sistemarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)” plana aurkeztu du. Dokumentu horrek berdintasunaren bidean aurrera egiteko beharrezko urratsen kontzeptu-gakoak eman eta horiek lantzeko behar diren material eta tresnak eskaintzen ditu. Plan horren bidez Euskal Hezkuntza-Sistemari, eta zehatzago esateko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapei, hezkidetza eskolan urratsak ematen jarraitzeko aukera eskaintzen zaie.

II. Hezkidetza Planak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietako ikasgeletako lan errearen euskarria izan nahi du. Planaren zortzi zutaberen artean berdintasunezko hezkuntza afektibo eta sexuala dago eta planak, atal hau lantzeko hainbat nazioarteko erakunderen eredia jarraitu

du. Zehazki UNESCO erakundeak argitaratutako “Sexu heziketari buruzko nazioarteko orientabide teknikoak. Evidentzian oinarritutako ikuspegia. 2018” dokumentuaren ildoak jarraitu ditu. Txosten horretan sexu heziketa txikitatik hasi behar dela azpimarratu eta “eskola adin tarte guztietan sistematizatu beharra” adierazten da. Bere gomendioen artean “berdintasuna, osasuna, plazerra, gizakion aniztasuna eta pertsona guztiekiko begirunean oinarritutako sexu heziketa bultzatzeko eskolak eta etxeak beraien indarrak batzea” eskatzen da.

Berdintasunezko hezkuntza afektibo eta sexuala: funtsezko zutabea.

Hezkidetzaren maisu handienetako bat den M.^a José Urruzolak bere liburu batean adierazi zuenez, “hezkidetza, norberaren sexua onetsi eta bere identitatearen gizarte-onarpenetik abiatzen da, halako moldez non autokontzeptu osasungarri eta positibo bat izanda norberak bere gizarte-identitatea eraiki ahal izatea bermatuko den. Gizon eta emakume kategoria hegemoniko eta baztertzailak alboratuz, joera sexistak gaindituz eta elkarrekiko begirunean oinarrituta, helburua sexu bietako pertsonen arteko komunikazioa erraztea da.”

Sexu heziketaz hitz egiten denean norbera sexuatu izateko modu bakarra eta errepikaezina aipatzen da eta pertsona bakoitzak horretaz duen bizipena ere.

“Duela berrogei urte inguru ez zen sexu hezkuntzarik lantzen. Orduan hasi ziren haurdunaldien prebentzioarekin. Gero gaitasunarekin. Eta gero familia plangintzarekin. Baina ikuspegia gutxitan abiatu da plazeretik, gozamenetik, harremanetatik”. Halaxe uste du Ixaso Torregrosa sexologoak. Ixaso Torregrosa “Haur eta Lehen

Hezkuntzako irakasleentzako sexu heziketari buruzko gida” landu du.

Gida didaktiko horren helburua da gakoak ematea irakasleei, gurasoei eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin esku-hartzea duen edonori. “Sexualitatearen ikuspegia zabaltzea eta sexu heziketa adin tarte guztietan lantzea ezinbestekoa da, jaiotzen garenetik izaki sexuatuak izan eta gure identitatea etengabe garatzen delako, eta jaiotzatik maitatuak eta onartuak izateko beharra daukagulako” adierazi du Torregrosak.

Kalitatezko esku-hartzeak egiteko, ikasle guztiengana heldu behar gara eta denen berezitasun eta beharrak kontuan izan. “Egiten ditugun gauza guztietan aniztasuna presente egotea oso garrantzitsua da; ezin izango baitugu denen nortasun edo sexualitatea modu positiboan elikatu, eredu zehatzak bakarrik aintzat hartuta lan egiten badugu. “Normaltasunaz” eta “anormaltasunaz” hitz egitea ekidin behar dugu, aniztasunaren aukera guztiak aintzat hartzen saiatuta” azpimarratu du Torregrosak.

Azken finean ume edo gazte batek bere burua ezagutzea laguntzen badugu, askeago sentituko da eta beraren gaitasun sozialak indartuko dira. “Gure haur eta gazteek beren buruak ezagutu eta onartzen badituzte, errazagoa izango dute modu askean adierazi eta jokatzeko; errazagoa izango dute gaitasuna lortzea haien nahi eta beharrak adierazteko, sentitzen dutenarekin bat eginda jokatzeko, besteen nahi eta beharrak aintzat hartu eta ulertzeko. Sexualitatea lantzeak badu puntu iraultzaile bat, ba da pertsonak modu askean hezteko modu bat.” bukatu du Torregrosak.

“EAE- hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)” planaren berdintasunezko hezkuntza afektibo eta sexuala lantzeko lan ildoak:

HAUR HEZKUNTZA

- Nork bere gorputza ezagutzea, gorputzaren atalak naturaltasunez izendatzea
- neskena zein mutilena—, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun fisikoak ezagutzea, nork bere gorputzaren eta beren inguruneke pertsonen gorputzaren gaineko interesa izatea.
- Ezetz esaten jakitea, eta zer gustatzen zaien eta zer gustatzen ez zaien aitortzea, haien eta gainerakoen gorputzetara iristeko mugak finkatzea (hautzarroan abusu sexualaren prebentzioa).
- Gorputzaren arloko estereotipoen eta horien onarpenaren aurka lan egitea.
- Pertsonen jatorriari buruzko galderei naturaltasunez eta haurrentzako hizkuntza ulergarrian erantzutea.
- Atxikipena, lotura emozionala, familien aniztasuna eta antzeko gaiak erakustea.
- Genero-nortasuna errespetatzea, baita aniztasuna ere. Gorputzen aniztasuna eta errespetua zaintzea.
- Adin horietarako sexualitatea jorratzen duten ipuinak partekatzea. Haur Hezkuntzara zuzendutako sexu-heziketako programak ezagutzea.

LEHEN HEZKUNTZA

- Gorputzen desberdintasunak, gorputzaren zaintza eta aurre-pubertaroko aldaketa fisiologikoak erakustea.
- Sexu-orientazio desberdinak errespetatzea eta ezagutzea.
- Afektuen adierazpena orokortzea, genero-estereotiporik gabe.
- Harreman afektiboaren eta sexualen mugak erakustea (adin txikikoaren aurkako sexu-abusuen prebentzioa).
- Nesken eta mutilen sexu-heziketan genero-estereotipoak modu kritikoa aztertzea, LGTBfobiak, Mendebaldeko edertasun- eta erakargarritasun-ereduen analisi kritikoa.
- Harreman afektiboetan eta sexualetan tratu onen eta berdintasunaren etika transmititzea, harreman afektibo-sexualetan indarkeria kritikatzeko, familia-eredu desberdinak ezagutzea.

BIGARREN HEZKUNTZA

- Nerabegaroko aldaketa fisiologikoak eta psikologikoak ikastea.
- Norberaren gorputza komunikazio- eta plazer-iturri gisa onartzea.
- Erakarmen erotikoan gustuen aniztasuna errespetatzea.
- Edertasunaren eredu estetikoak aztertzea.
- Fisiologia maskulinoa eta femeninoa ezagutzea, anatomia.
- Harreman pertsonaletan eta sexualetan etika transmititzea: adostasuna, plazer partekatua, osasun sexuala, leialtasuna, berdintasuna eta elkarrekiko zaintza.
- Egoera gatazkatsuek enpatiatik eta gainerakoen eskubideak onartzetik konpontzea. Lankidetzan jardutea eta laguntzea.
- Iruditeria erotikoa aniztasunetik eta ez-sexismotik eraikitzea.
- Berdintasuna onartzea, genero-indarkeriaren prebentzio gisa.
- Maitasuna: maitasun motak, analisia kritikoa. Mito erromantikoen dekonstrukzioa.
- Desberdintasunak nesken eta mutilen sexualitatean.
- Genero-indarkeriaren arloan dauden baliabideak hurbiltzea.
- Maitasun erromantikoen mito dekonstrukzioa.
- Nesken eta mutilen sexualitatean dauden aldeak onartzea.
- Sexu- eta erreproduktzio-osasunaren arloko baliabideak hurbiltzea.
- Sare sozialen erabilera etikoari buruz eztabaidatzea.
- Pornografia emakumeen kontrako indarkeriatzat jotzea.

Interesgarria / De Interés

BIDEOA



MARIAN MORENO

Marian Moreno en la presentación del segundo Plan de Igualdad habla sobre los Pilares de la Coeducación: camino a la igualdad en las aulas en EskolaAbian.

[VER VIDEO](#)

LIBURUA



ARROSA eta LEUNA

Lorategi batean itxirik bizi dira elefante-kume emeak. Paskualina da hai-etako bat, baina, besteek ez bezala, ez du lortzen bere azala arrosa eta leuna izatea. Aitak eta amak, etsiturik, itxura hori izatera behartzen ez dutenean, Paskualina askatasuna zer den ohar-tuko da, eta berdintasunerako bidea irekiko die bere lagunei.

LIBURUA



NIK SINESTEN DIZUT

Samara Velte kazetari eta ikerlariak 'Nik sinesten dizut' liburua aurkeztu du Iruñean, Aleka bildumaren zortzigarren liburua. 2016ko sanferminetan gertatutako taldeko bortxaketa aitazakia, ikuspegi kritikoa batetik aztertzen du auzia: «Kronika liburu soil bat ez zen beharrezkoa, indarkeriari buruzko errelato koherentea baizik».

La UPV incluirá una asignatura sobre perspectiva de género en sus grados



La Universidad del País Vasco (UPV/EHU) introducirá en los grados de cada uno de los ámbitos científicos una asignatura piloto sobre perspectiva de género. Esta es una de las medidas recogidas en el III Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres que acaba de aprobar la universidad, con el reto de ser “un modelo de referencia en el ámbito del compromiso social para caminar hacia la igualdad real de mujeres y hombres y respecto a la diversidad”, afirma Idoia Fernández Fernández, Vicerrectora de Innovación, Compromiso Social y

Acción Cultural. Este nuevo plan propone como “prioridad” fomentar la inclusión de la perspectiva de género y la teoría feminista en el ámbito de la docencia, así como en los Trabajos Fin de Grado y Máster.

Se estudiará la presencia de la perspectiva de género en todas las titulaciones para analizar si se puede insertar curricularmente y se crearán equipos docentes que investiguen y desarrollen una formación científica con este enfoque en soportes virtuales y semipresenciales.

2018ko Berdintasunerako Emakunde saria UPV-EHU-ko Berdintasuneko eta Deustuko emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko masterrei

Berdintasunerako Emakunde Saria, azken edizioan, honako hauek eskuratu dute: UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna: Berdintasunaren Eragileak Masterrak eta Deustuko Unibertsitateko Emakumeen Kontrako Indarkerian Esku hartzeko Masterrak, 2001ean eta 2003an sortutakoak, hurrenez hurren. Epaimahaiak nabarmendu du gaur egun berdintasun-politiketan lan egiten dutenak, master horien bidez, beren lana goi-mailako prestakuntzarekin bete dezaketela eta beren jardueran beharrezko genero-ikuspegia sar dezaketela. Bi master horietako arduradunek saria Lehendakariaren eskutik jaso zuten apirilaren 16an



«Online» kontrolatzen den gauza ederra ote da maitasuna?



Medicus Mundi Gipuzkoak, Farapi Kooperatiba Elkarteak, UPV/EHUk, Donostiako Udalak eta Peruko Movimiento Manuela Ramos erakundeak elkarlanean ikerketa egin dute galdera horri erantzun nahian. “Online kontrolatzen den gauza ederra ote da maitasuna? Euskal eta perutar nerabeak harremanen kudeaketa birtualean” izenburua jarri diote lanari eta patxadaz hausnartzeko ondorioak jarri dituzte mahai gainean. Jar dezagun arreta Gipuzkoako nerabeen partean.

Sare sozialek eraldatu egin dute pertsonak komunikatzen diren, erlazionatzen diren eta elkarri eragiten dioten modua. Espazio berri horrek bere egin ditu generoen arteko berdintasun eza eta sexismoa. Har-

tara, maitasun erromantiko heterosexuak eta bikote harreman egonkorraren ereduak erakusleho aparta topatu dute sare sozialetan. Ikerketaren arabera, «maitasun erromantikoaren zerbitzura dagoen tresna da». Gainera, kontrolerako baliabide ugari eskaintzen ditu eta botere harreman desorekatuak irautarazten ditu, «hierarkikoki, gizonetzkoen aldekoa den sexu-genero sistema».

Esanda bezala, teknologia berriek erlazionatzeko modu berriak dakartzate, indarkeria matxista berriak barne. Izan ere, sare sozialak 24 orduz irekita daudenez, horien bidez egin daitekeen kontrola, jazarpena eta erasoak ere etengabeak izan daitezke, 24 ordutakoak.

¿SABIAS QUÉ?

¿QUIÉN FUÉ MARIA JOSÉ URRUZOLA?

Mari Jose Urruzola Zabalza (Irun, 1941 – Bilbao, 28 de abril de 2006) fue una pedagoga, feminista y escritora concienciada con la coeducación y la educación para la igualdad.

M^a José era la autora de numerosas guías pedagógicas no sexistas. Algunas de ellas especialmente cuestionadas por los sectores conservadores.

Entre sus trabajos:

- “Guía práctica para chicas. Cómo prevenir y defenderte de las agresiones
- La Educación no sexista, ¿una asignatura o una transversal
- Prevención de la violencia sexista desde la escuela

LUCÍA TORREALDAY

HEZKUNTZA SAILEKO HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA



“Berdintasunean eta berdintasunerako hezitzean datza. Desberdintasunari eta norberaren aukera pertsonalei begirunea izan eta bigarren planeko izenburuak dioen bezala tratatu onean oinarritzen da hezkidetzak.”

Lucía Torrealday Berruecok hezkuntzaren mundua ikuspegi askotatik ezagutzen du. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako irakaslea izan zen aurrena eta bere lanbide ibilbidearen hasieratik suertatu zaion erronka bakoitzari eutsi egin dio.

24 urterekin ikasketaburua izan zen. Urte bat geroago Intxitxu Ikastola sare publikora pasatzeko prozesuaren erdian zegoenean, ikastetxe horretako zuzendari-kargua onartu zuen. Hamabost urteren ibilbide baten ondoren hezkuntza ikuskarria egin zen eta orain dela hiru urte Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria da. Kargu horretan bere gain hartu dituen erronken artean II Hezkidetzak Plana ezartzea dago. Plan horren helburu nagusia da ikasgeletan eragina izan eta irakasleen eguneroko lana erraztuko duten materialak eskaintzea.

Zertan oinarritu zarete Hezkuntza Saileko II Hezkidetzak Plana osatzeko

Planaren lehenengo atalaren abiapuntua, lehenengo planean ezarri ziren helburu eta jardueren ebaluazioa egitea izan da. Bigarren aldagai desberdinen arabera egoeraren diagnostikoa egin da: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, indarkeria matxista, kalteberatasun arriskuan dauden gizataldeak, eta abar. Diagnostikoak erakutsi du kontuan hartzeko moduko arazo asko daudela oraindik, adibidez ikas-

leek zer-nolako ikasketa eta lan norabideak aukeratzeko dituzten, soldata eta teknologia arrailak, generoari lotutako bizitza proiektuak, emakumeen okupazio-tasa... Alderdi guzti hauetan eta beste batzuetan oinarritu gara plana garatzeko.

Nori dago zuzenduta plana?

Ikastetxe publiko zein itunduetako haur hezkuntza, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza eta batxillergoko mailetara zuzenduta dago. Hezkuntza Sailak ikastetxeei eskeintzen dizkien baliabideak erabiliz, deialdien bidez burutu daiteke. Bizikidetzak eta hezkidetzak gaitan Berritze-guneen sarearen aholkularitza daukagu ere.

Zer da hezkidetzak eta zertarako bailo du?

Berdintasunean eta berdintasunerako hezitzean datza. Desberdintasunari eta norberaren aukera pertsonalei begirunea izan eta bigarren planeko izenburuak dioen bezala tratatu onean oinarritzen da hezkidetzak. Gizon edo emakume jaiotze hutsagatik estereotipo batzutarako lotzeak gure bizitza proiektua eta lanbide ibilbidea balditzatzeko baino ez du bailo.

Zeintzu dira hezkidetzak plan honen helburu nagusiak?

Lehenengoa batez ere egiturak eta prestakuntzarekin lotuta dago. Hezkuntza-komunitatea, sisteman berdintasun neurriak eta hezkidetzak ezartzeko trebatu nahi dugu. Bigarren helburuak ikastetxeekin zerikusia dauka, genero ikuspuntu hori haien kulturaren txertatzea lortu behar dugu. Ikastetxeeko dokumentuak landu, proiektuak burutzeko sustatu eta proiektu horiek martxan jartzeko erakunde, eragile eta ikastetxeen arteko lankidetzak bultzatzen dira. Azkenik hirugarren helburua, indarkeria matxista prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horri erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzean datza.

Zeintzu dira planean jasotzen diren ekintza nagusiak?

Prestakuntza da planean nabarmendu beharreko alderdi bat. Irakasle talde desberdinei lotutako 14 ekintza daude: Berritze-guneak, BAT taldeak (Bullying-aren aurkako taldeak), irakasle kolektibo desberdinei bereziki zuzendutako prestakuntzak, hezkuntza ikuskaritza, orientzaileak, zuzendaritza taldeei eta abar. Azpimarratzeko moduko beste alderdi bat da nire ustez, ikastetxeei zortzi hezkidetzak-zutabeen materialeak eskeinitzeko zaizkiela, hezkuntza etapa desberdinetan gauzatu eta ikastetxe bakoitzak egindako lanaren arabera bere proiektua garatzeko. Asmoa izango litzateke nolabait ikastetxe bakoitzak bere bide-orria egitea.

-Azkenik, zuk azpimarratutako zenituzkeen aspekturik garrantzitsuenak?

Beharbada aipatu dudana azkena. Ikastetxeetara, ikasgeletara heldu eta zortzi hezkidetzak-zutabe horiei lotutako hezkidetzak proiektuak burutzeko. Bada nabarmendu beharreko beste alderdi bat, oso garrantzitsua nire ustez, plana egiteko eta aurrerantzean plana garatzeko eta burutzeko EMAKUNDEren aldetik izan dugun lankidetzak. Hau bezain garrantzitsua da gure planak BIZIKASI ekimenarekin duen elkarlana. BIZIKASI 2017-tik aurrera ikastetxeetan martxan den bizikidetzak posiboa bultzatu eta eskola-jazarpen kasuak kudeatzeko ekimena da.

